

DEKRETUA, 2022ko XXXXXaren XX(e)koa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan araubide bereziko kirol-ikasketak emateko erregulazioa, bai eta baimenak aldatu eta azkentzekoa ere.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 3.6 artikuluan jasotzen denaren arabera, kirol-ikasketak araubide bereziko ikasketak dira. Gainera, lege horren 64.1 artikulua xedatzen du kirol-ikasketak bi mailatan egituratzen direla: erdi-maila eta goi-maila, zeinak, hurrenez hurren, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoaren eta goi-mailako hezkuntzaren parte baitira.

Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak araubide bereziko kirol-ikasketen antolamendu orokorra ezartzen du.

Otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduaren bidez, 1363/2007 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean aipatzen diren kirol-prestakuntzako jardueren curriculum-alderdiak, baldintza orokorrak eta ondorioak arautzen dira.

Ikastetxeak sortzeko askatasuna, berriz, Konstituzioaren 27.6 artikuluan jasotzen da. Bestalde, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 16. artikulua xedatzen duenez, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da irakaskuntza bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, modalitate eta espezialitate orotan, hargatik eragotzi gabe Konstituzioaren 27. artikuluan eta 149.1.30 artikuluan ezarritakoa.

Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak lehenengo tituluan III. kapituluaren finkatzen du nola egikaritu behar den eskubide hori ikastetxe pribatuak sortzeko; zehazki, 23. artikuluan ezartzen du administrazio-baimenaren printzipioaren mende egongo direla araubide orokorreko nahiz araubide bereziko ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe pribatuen irekiera eta jardunbidea. Halaber, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak – zeina abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren bidez aldatu baita –, oro har, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikora igortzen du 2/2006 Lege Organikoan arautzen diren ikasketak eskainiko dituzten ikastetxeak arautzeko.

Aurretiazko baimenaren betekizuna urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 45. artikuluan eta lehenengo xedapen iragankorrean eta otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduaren 25. artikuluan jasotzen da.

Hezkuntza Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala Ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak 16.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren egitekoen eta arloen artean dago unibertsitateaz kanpoko unitate eta ikastetxe pribatuak baimentzeko eta baimen horiek aldatu eta azkentzeko prozedurak hasi eta izapidetzea, bai eta emandako baimenen betekizunei eusten zaiela gainbegiratzea ere.

Horrenbestez, araubide bereziko kirol-ikasketak emango dituzten ikastetxeen sustatzaileei espedienteak izapidetzeko bitarteko egokia eskaini behar zaie, bermatuko dituen bai sustatzaileen eskubideak, bai halako ikastetxeak irekitzeko eta funtzionatzeko eskatzen diren gutxieneko baldintzak betetzen direla.

Dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotakoaren arabera.

Hori guztia aintzat hartuta, Hezkuntzako sailburuak proposatuta, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzunda, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorruta, eta Gobernu Kontseiluak 202X(e)ko XXXXXaren XX(e)an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. – Xedea eta ezarpen-esparrua.

1.– Dekretu honen xedea da araubide bereziko kirol-ikasketak emateko administrazio-baimena arautzea, bai eta baimen horiek aldatu eta azkentzea ere.

2. – Dekretu honetan ezarritakoa aipatutako irakaskuntzak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuri buruzko hurrengo artikuluan adierazitako ikastetxeetan emateko aplikatuko da.

2. artikulua.– Zein ikastetxetan emango diren.

Dekretu honen xede diren kirol-irakaskuntzak araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 45. artikulua 1. apartatuan jasotako ikastetxeetan eman ahal izango dira. Errege-dekretu hori araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 26ko 628/2022 Errege Dekretuak aldatu zuen.

Ikastetxe horiek honako kasu hauei dagozkie:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titulartasuneko ikastetxe publikoak, hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren mendeak.
- b) Toki-korporazioen titulartasuneko ikastetxe publikoak.
- c) Ikastetxe pribatuak.

3. artikulua.– Kirol-federazioek sustatutako ikastetxeak.

Araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 45. artikulua 2. apartatuarekin bat, salbuespenez, Espainiako kirol-federazioek sustatutako ikastetxeak baimendu daitezke kirol-ikasketen ziklo jakin bateko bloke espezifiko bat eman dezaten, baldin eta prestakuntzaren eskaintza osoa bermatuta badago beste ikastetxe batekin sinatutako hitzarmen baten bidez, aipatutako dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

4. artikulua.– Aplikatu beharreko arauak.

1.– Hezkuntza-sistemako araubide bereziko kirol-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe guztiek, oro har eta baimenduak izate aldera, irakaskuntza horiek ematea arautzen duten edo horretarako aplikatu behar den Estatuko oinarrizko araudian eta araudi autonomikoan ezarritakoa bete beharko dute.

2.– Baimendutako irakaskuntzak indarrean dagoen antolamendu akademikoko araudiaren arabera emango dira.

5. artikulua.– Prozedurak ebazteko eskumena.

1. Ikastetxe pribatuen kasuan, hezkuntza-arloko sail eskuduneko titularrari dagokio dekretu honetan araututako baimen-, aldaketa- eta azkentze-prozedurak ebaztea.

2. Ikastetxe publikoen kasuan, ikastetxeak baimentzearen arloko sail eskuduneko zuzendaritza

organikoko titularrari dagokio irakaskuntzak emateko baimen-, aldaketa- eta azkentze-prozedurak ebaztea.

Ikastetxe horietarako, prozedurak 20. artikuluan ezarritako txostenarekin ebatziko dira, eta, hala badagokio, 21. artikuluan ezarritakoarekin, organo horrek emandakoarekin.

Hezkuntzarako eskubidea arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 17. artikuluan eta ikastetxe publikoak sortzearen, aldatzearen eta ezabatzearen arloan aplikatu beharreko gainerako araudian aipatzen den ikastetxe publikoak sortzeko prozeduran sartuko dira txosten horiek.

Halaber, toki-korporazioen titulartasuneko ikastetxeen kasuan, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan jasotako hitzarmen-proposamena sartuko da prozeduran.

6. artikulua.– Erregistroko inskripzioa, argitalpen ofiziala eta sarbide publikoa.

1. Hezkuntza-sistemako unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeak baimentzearen arloko sail eskuduneko zuzendaritza organikoak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen erregistroan inskribatuko ditu, ofizioz, baimenari eta hura aldatzeari edo azkentzeari buruzko erregistro-datuak, eta arauz eskatzen den informazioa igorriko dio unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen Estatuko erregistroari.

2. Jakinarazteko betebeharra gorabehera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, denek jakin dezaten, hezkuntza-sistemako araubide bereziko kirol-irakaskuntzak emateko baimenen xedapen-zatia, bai eta horiek aldatzeari eta azkentzeari buruzkoak ere.

Ikastetxe publikoen kasuan, argitalpen hori emandako irakaskuntza zehatzak sortzeko dekretuan, eta aldatzekoan, jasota egingo da.

3. Une bakoitzean indarrean dauden baimenei buruzko datuak <<https://www.euskadi.eus>> egoitza elektronikoaren bitartez egongo dira jendaurrean.

7. artikulua.– Bitarteko elektronikoak.

1.– Dekretu honen xede diren prozeduren eskaera, instrukzioa eta ebazpena bitarteko elektronikoekin egin eta jakinaraziko dira, <<https://www.euskadi.eus>> egoitza elektronikoaren bidez, sinadura elektronikoa erabiliz. Horren ziurtagiria atarian bertan eska daiteke.

2.– Aurretik adierazitakoa ezertan eragotzi gabe, izapideak egitea dagokien hezkuntzako lurralde-ordetzaritzako unitateek edo zerbitzuek informazioa eta aholkuak emango dizkiote dekretu honetan araututako prozeduraren bat hasi nahi duen orori, bai prozedura formalki hasi aurretik, bai prozeduran zehar.

II. KAPITULUA

ADMINISTRAZIO-BAIMENA

8. artikulua.– Titulartasuna.

1. Baimen-eskaeran adieraziko da zein den irakaskuntza emango den ikastetxeko pertsona fisiko edo juridiko sustatzailea, titular gisa.

2. Baldin eta Hezkuntzarako eskubidea arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 21.2 artikuluan eta, hala badagokio, aplikatu beharreko gainerako araudian jasotako debekuren bat betetzen ez bada, espainiar nazionalitatea edo Europar Batasuneko beste edozein estatu kideakoa duen edozein pertsona fisiko edo juridiko izan daiteke titularra, bai eta beste estatu batzuetakoa

dutenak ere; kasu honetan, aplikatu beharreko legediak ezartzen duena bete beharko du.

9. artikulua.– Baimendutako jardueraren xedea, mugak eta baldintzak.

1. Baimenaren xedea da irakaskuntza zehatzak ematea, gehieneko unitate eta ikaspostuetan, eta baimenean ezarritako gainerako zehaztapenak beteta.

2. Berariaz besterik ezartzen denean izan ezik, baimenaren xedea da baimendutako titulu akademikoa edo irakaskuntza lortzeko modulu, bloke edo ziklo guztiak egunekoa, aurrez aurrekoa eta osoa den araubidean ematea.

Irakaskuntza aurrez aurrekoa, egunekoa eta eskaintza osokoa ez den beste araubide batean emateko baimena, irakaskuntza zehatz hori arautzen duen araudiak dagokion irakaskuntza emateko araubidea ahalbidetzen duen moduan bakarrik eman ahal izango da.

3. Baimenak baimendutako ikaspostuen kopurua adieraziko du, eman beharreko irakaskuntza zehatzari aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen sarea antolatze eta planifikatzeko irizpideak arautzen dituen indarreko araudia kontuan hartuta.

10. artikulua.- Eraikinak, espazioak eta instalazioak.

1. Ikastetxeak eskola-erabilerarako soilik ez diren eraikin eta instalazioetan kokatu ahal izango dira, betiere arauz eskatzen diren gainerako baldintzak eta prestakuntza-espazioak eta ekipamenduak betetzen badituzte.

2. Baimenean sartu hartu ahal izango da espazioak eta instalazioak Araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 45. artikulua 4. apartatua ezarritako baldintzetan erabili ahal izatea.

3. Errege Dekretu horren 46. artikuluekin bat etorritik, kirol-modalitate eta -espezialitate batzuetan eragiten duten urtarokotasun- eta iragankortasun-baldintzatzaileak kontuan hartuta, bloke espezifikoaren zati bat, prestakuntza praktikoko moduluarena barne, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egitea ahalbidetu beharko dute baimenek.

4. Ikastetxeek ikasgelak eta beste espazio batzuk, instalazioak, ekipamenduak, irakasleak eta eman beharreko irakaskuntza arautzen duen araudiak eskatutako beste edozein betebeharrak material eta pertsonal izango dituzte, bai orokorrean, bai ziklo, titulu, modalitate edo espezialitate jakinetarako.

5. Ikastetxeek higie-, soinu-, bizigarritasun-, argiztapen-, aireztapen-, klimatizazio- eta segurtasun-baldintzak bete beharko dituzte, bai eta araudi teknikoek eta aplikatu beharreko araudiek eskatzen dituzten gainerako baldintzak ere.

6. Ikastetxeek behar diren baldintzak izango dituzte desgaitasun fisikoa duten erabiltzaileak instalazioetara sartu eta horiek erabili ahal izateko, aplikatu beharreko legedian ezarritakoarekin bat.

7. Titulartasun bereko sare bat Euskal Autonomia Erkidegora zedarrituta badago eta ikastetxe batek eta hainbat egoitzak osatzen badute, hezkuntza-arloko sail eskudunak, sarearen titularra entzun ondoren, baimenean zehaztu ahal izango du zer betebeharrak bete behar dituen sareak zuzendaritzari eta administrazioari dagokienez, egoitza bakoitzean irakaskuntzaren kalitatea eta ikasleen arreta eta segurtasuna zaintzeko.

Ikastetxe nagusia adierazi beharko da beti egoitza nagusi gisa ikastetxeak baimentzeko aginduan.

Baimenak ez ditu inola ere murriztuko eman beharreko irakaskuntza zehatzak arautzen dituen

araudi espezifikoko eskatutako baliabide material, instalazio, ekipamendu, irakasle eta gainerako langileen betebeharrak.

11. artikulua.– Ikasle-ikastetxe eta ikasle-irakasle ratioak.

Ikasle eta eskola-unitatearen eta ikasle eta irakasleen ratioak Araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 48. artikuluan ezarritakoaren arabera izango dira eta, hala badagokio, titulu akademiko zehatza sortzeko edo arautzeko araudi espezifikokoaren arabera.

12. artikulua.– Irakasleek bete beharreko baldintzak.

Kirol-irakaskuntzako irakaskuntza-jarduna Araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 51. artikuluen 49., 50. eta 51. apartatuetan ezarritakora egokituko da.

13. artikulua.– Izena.

1. Ikastetxeen izen generikoa eta espezifikoa ikastetxe- eta irakaskuntza-moten izena jasotzen duen araudian ezarritakora egokituko dira oro har.

2. Ikastetxearen izaerari eta titulartasunari, emandako irakaskuntzei edo horien balio ofizialari buruzko nahasteak eragin ditzaketen izenak saihestu egingo dira.

3. Ikastetxeek ezingo dute 6. artikuluan aipatzen den erregistroan jasotako izena ez den bestelako izenik erabili.

14. artikulua.– Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean aipatutako kirol-prestakuntzako jardueren bloke komuna emateko baimena.

Araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean aipatutako kirol-prestakuntzako jardueren bloke komuna emateko baimena xedapen horretan eta otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduaren (Kirol-hezkuntzako jardueren curriculum-alderdiak, baldintza orokorrak eta ondorioak arautzen dituen, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehenbiziko xedapen iragankorrak aipatzen dituenak) 25. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritakoak arautuko dute.

15. artikulua.– Urrutiko irakaskuntza.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikotik eratorritako kirol-irakaskuntzetan, eta urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 26. artikuluekin bat etorriz, kirol-modalitate eta -espezialitate bakoitzaren titulua eta gutxienezko irakaskuntzak ezartzen dituen errege-dekretuan ezarritakoa beteko da, bai eta, hala badagokio, aplikatu beharreko araudi autonomikoan xedatutakoa ere.

2.– Abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretutik eratorritako kirol-irakaskuntzen kasuan, titulu eta irakaskuntza berriak sortu arte, bloke komunari dagozkion moduluak soilik eman ahal izango dira urrutitik.

3.– Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrak aipatzen dituen kirol-prestakuntzako bloke komuneko moduluak urrutitik emateko, beharrezkoa izango da aldeaz aurretik lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea dagokion autonomia-erkidegoko kirol-federazioarekin, modulu horiek aurrez aurre eman ahal izateko.

4.– Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kirol-

irakaskuntzak urrutitik ematen dituzten ikastetxeek alde zureko baimena eduki beharko dute irakaskuntza horiek aurrez aurreko araubidean emateko.

5.– Hezkuntza-arloko sail eskudunak arautuko ditu irakaskuntza horien kalitatea bermatuko duten espazioei, ekipamenduari, baliabideei eta irakasleei buruzko alderdiak.

16. artikulua.– Baimen-eskaeraren inprimakia.

1.– Eskaera 7. artikuluan aipatutako egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen inprimakiaren bidez egin eta aurkeztuko da. Eskaerak honako datu hauek jasoko ditu:

a) 8. artikuluan aipatutako pertsona fisikoa edo juridikoa.

b) Ikastetxearen izen espezifikoa.

c) Kokapena honako hauek adierazita: kalea, zenbakia, udalerria eta lurralde historikoa. Kokaleku edo egoitza desberdinez osatutako ikastetxeen kasuan, egoitza guztien kokapenari buruzko datuak jasoko dira, eta egoitza nagusia zein den adieraziko da.

d) Baimentzeko eskatzen diren irakaskuntza zehatzak, honako hauek adierazita: mailak, zikloak, graduak, modalitateak edo espezialitateak, bai eta blokeak edo moduluak ere eskaintza partzialen edo modularren kasuan. Egoitza bat baino gehiago izanez gero, egoitza horietako bakoitzari dagokiona zehaztuko da.

e) Irakaskuntza emateko araubidea: egunekoa, aurrez aurrekoa, urrutikoa edo distantzia birtualekoa, dagokion irakaskuntzaren antolamendu akademikorako arauetan baimendutakoen artean.

f) Maila, ziklo, gradu, modalitate edo espezialitate bakoitzerako eskatzen diren unitate eta ikaspostuen kopurua, eta, halaber, eskaintza partzialen edo modularren kasuan, bloke edo modulu bakoitzerako eskatzen direnak, eta irakaskuntza emateko araubidea. Egoitza bat baino gehiago izanez gero, egoitza horietako bakoitzari dagokiona zehaztuko da.

g) Irakaskuntza emango den lehen ikasturtea.

2.– Aurretik adierazitakoa ezertan eragotzi gabe, 3. artikuluan aipatutako baimen-eskaerak ikastetxeen arloko zuzendaritza organiko eskudunera bideratuko dira, Kirol Kontseilu Gorenaren bitartez.

17. artikulua.– Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoa gorabehera, eskaerari hurrengo apartatueta zerrendatutako agiriak erantsiko zaizkio nahitaez.

1. Titularraren nortasun fisiko edo juridikoaren ziurtagiria, eta, hala badagokio, ordezkariarena.

a) Pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko da, salbuespen hauekin:

– Europar Batasuneko beste estatu kide bateko nazionalak Atzerriarren Erregistro Zentralaren ziurtagiriaren kopia aurkeztuko du, Batasuneko herritarra dela egiaztatzeko.

– Beste estatu batzuetako nazionalak, egoitza eta jarduera Espainian izatea baimentzen duen agiri ofizialaren kopia aurkeztuko du.

Ez da beharrezkoa izango nortasun fisikoaren ziurtagiriaren kopia aurkeztea, baldin eta hezkuntza-arloko sail eskuduna baimentzen bada dagozkion erregistroetan identitate pertsonaleko datuak

zuzenean egiaztatzeko.

b) Ordezkarari baten bidez jardunez gero, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, ordezkariak egiaztatzen duen dokumentua aurkeztuko da.

c) Pertsona juridiko pribatua bada, dagokion sozietatearen, fundazioaren edo erakundearen eraketa-agiria, administrazio-erregistroan inskribatua, hala badagokio, nahitaezkoa, bai eta haren ordezkari gisa jardungo duenaren izendapena edo egiaztatzea ere. Nolanahi ere, erakundearen nortasun juridikoaren egiaztapena eta jarduteko ahalmena frogatzeko agiri hauetako kopia autentifikatu bat aurkeztuko da: eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuen agiria edo sortze-akta, jarduerari buruzko arauak zehazten dituenak. Halaber, nagusi-karguak betetzen dituzten pertsonak edo pertsona juridikoaren kapitalaren % 20aren edo gehiagoren titular direnak jasoko dituen ziurtagiria aurkeztuko da. Erlijio-erakunde baten kasuan, Justizia Ministerioko Erlijio Erakundearen Erregistroan izena eman duela adierazten duen ziurtagiria eman beharko da.

d) Pertsona juridiko publikoa bada, jarduera garatzeko eskumena ematen dion zerbitzu juridikoaren txostena, erabakia hartzeko organo eskudunaren erabakia eta haren ordezkari gisa jarduten duenaren izendapena edo egiaztapena aurkeztuko dira.

2. Erantzukizunpeko adierazpena, Hezkuntzarako eskubidea arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 21.2 artikuluan jasotako debekuren batean ez dagoela adierazten duena.

3. Ikastetxearen funtzionamendu-ordutegia. Dekretu honen ondorioetarako, ikastetxearen funtzionamendu-ordutegia izango da irakaskuntza emateko erabiltzeko instalazioak eta gelak irakaskuntza emateko erabiltzen diren denbora.

4. Hezkuntza-proiektua edo prestakuntza-plana, guztizko orduak mailaka jasota eta horien banaketa adierazita.

5. Irakasleen zerrenda eta, hala badagokio, jardueraren hasieratik, irakaskuntza emateko nahitaez eduki behar diren beste profesional batzuen, titulazioa adierazita eta tituluaren kopia autentikatua aurkeztuta.

Eta urtarilaren 1eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan ezarritakoarekin bat (Adingabearen babes juridikoarena, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren aldaketa partziala egitekoa), adingabeekin ohiko harremana izatea eragiten duten jarduerak egingo dituzten langile guztiek sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen batengatik eta gizakien salerosketagatik epai irmo bidez kondenatuta ez izatearen betebeharra betetzen dutela egiaztatzen duen agiria.

Zerrenda eta egiaztatze horien ordezkari, 22. artikuluko 3. apartatuan jasotako gehieneko epean aurkezteko konpromisoa hartu ahal izango da.

5. apartatu honetan aipatutako titulazioaren kopia eta kondenatuta ez dagoela ziurtatzen duen agiriaren ordezkari, irakasleak edo profesionalak baimena eman ahal izango dio hezkuntza-arloko sail eskudunari zuzenean egiaztatu dezan dagozkion tituluen eta zigortuen erregistro ofizialetan.

6. Ikastetxeak irakaskuntzak emateko izango duen material didaktikoaren eta ekipamenduaren zerrenda, edo 22. artikuluko 3. apartatuan jasotako gehieneko epean zerrenda hori aurkezteko konpromiso formala.

7. 18. artikuluan adierazitako espazio, higiezin eta instalazioei buruzko dokumentazioa.

8. Hala badagokio, baimendu beharreko irakaskuntza zehatzak emateko arauz eskatzen diren betebeharrak egiaztatzen dituzten beste agiri batzuk, besteak beste, dekretu honen II. kapituluaren eta

gaiarekin bat datorren araudian jasotakoak.

18. artikulua.– Espazio, higiezin eta instalazioei buruzko dokumentazioa.

Eskaerarekin batera, espazioei, higieziinei eta instalazioei buruzko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Jabetza Erregistroan inskribatutako higiezinaren jabetza-eskritura; hori izan ezean, errentamendu-kontratua edo higiezina, instalazioak eta espazioak erabiltzeko aukera egiaztatzen duen beste edozein titulu juridiko, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiak eskatzen duen eskusibotasun- edo lehentasun-baldintzetan.

b) Higiezinaren eta instalazioen kokapen-planoa, dagokion herrian, bai eta herrien eta haien ingurunearen argazkiak ere.

c) Obrak edo instalazioak behar ez badira, horien egungo egoeraren planoak aurkeztuko dira, eta espazio, gela edo instalazio bakoitzari emango zaion erabilera adieraziko da. Solairu eta estalki guztien banaketaren planoak 1/100 edo 1/50 eskalan egingo dira, kotatuta, eraikitako azalera erabilgarria adierazita, eta teknikari eskudun batek sinatuta.

d) Obrak edo instalazioak egin behar badira, egin beharreko obren proiektua aurkeztuko da, hala badagokio, elkargo profesionalak nahitaez ikus-onetsita, eta espazio, gela edo instalazio bakoitzari emango zaion erabilera zein den adieraziko da.

e) Espazioei, higieziinei eta instalazioei eskatzen zaizkien betebeharrak betetzen direla dioen memoria edo ziurtagiria, honako hauek, besteak beste: higie-, soinu- eta bizigarritasun-baldintzei dagozkienak, suteetarako segurtasunarenak (DB SI), egiturazko segurtasunarenak (DB SE), zarataren aurkako babesarenak (DB HR) eta gainerako oinarritzko dokumentuei dagozkienak, Eraikintzaren Kode Teknikoa onartzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikintzaren Kode Teknikoaren (EKT) indarreko legediaren arabera, bai eta irakaskuntza emateko baimena eskatzen den tituluak arautzen dituen araudian ezarritakoak ere.

f) Udalaren lizentzia, edo, bestela, 22. artikuluko 3. apartatuan jasotako epean aurkezteko konpromiso formala.

g) Hala badagokio, baimendu beharreko irakaskuntza zehatzak emateko espazio, higiezin eta instalazioei arauz eskatzen zaizkien betebeharrak egiaztatzen dituzten beste agiri batzuk, besteak beste, dekretu honen II. kapituluan eta gaiarekin bat datorren araudian jasotakoak.

19. artikulua.– Eskaera zuzentzea.

Baimen-eskaeran ez badaude jasota eskatutako datuak edo agiriak, izapidetzea dagokion unitateak edo zerbitzuak eskatzaileari eskatuko dio zuzen dezala falta edo aurkez ditzala nahitaezko dokumentuak, hamar egun balioduneko epean –epe hori bost egun luza daiteke, gehienez–, eta ohartaraziko da ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, aurrez ebazpena emanda, eta jarduketak artxibatuko direla.

20. artikulua.– Zerbitzu teknikoaren eta ikuskaritza-zerbitzuen proposamen-txostenak.

1. Prozeduran, nahitaezko txosten hauek eskatuko dira:

a) Higiezinaren, espazioaren eta instalazioaren betekizunei buruzko proposamen-txostena, udal-lizentzia barne. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako unitate tekniko eskudunak egingo du, kokapen-lurraldearen arabera.

b) Ikastetxearen giza baliabideen, ekipamenduaren, funtzionamenduaren, unitate-kopuruaren,

ikaspostuen, irakasle/ikasleen zenbakizko zerrendaren, hezkuntza-proiektuaren edo prestakuntza-planaren betebeharrei buruzko proposamen-txostena. Hezkuntza Ikuskaritzak egingo ditu.

2. Proposamen-txostenak egin aurretik, behar beste bisita egingo dira espazio, higiezin eta instalazioetara.

Halaber, beharrezkoa dela iritiz gero, eskatzaileari eskatuko zaio, hamar egun balioduneko epean, prozedura behar bezala ebatzeko beharrezkotzat jotzen diren argibideak edo dokumentazio osagarria aurkezteko, erreklamatzearen komenigarritasuna arrazoituz eta ohartaraziz, aurkezten ez badu, dagokion izapidean indargabetutzat aitortuko dela eta prozedurak aurrera jarraituko duela.

3. Gabeziak antzemanetz gero, proposamen-txostenak egin aurretik, eskatzaileari hautemandako gabezien zerrenda arrazoituaren berri emango zaio, eta hamar egun balioduneko epea emango zaio alegazioak aurkezteko edo antzemandako akatsak zuzentzeko. Epea igaro ostean, dagokion proposamen-txostena egingo da.

4. Aipatutako proposamen-txostenak baimenaren aldekoak edo aurkakoak izango dira, behar bezala arrazoituta.

Obrak egin behar badira, edo 17. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan eta 18. artikuluko f) letran aipatzen diren dokumentuen ondorengo ekarpena egiteko konpromisoa hartu bada, aldeko txostena berariaz baldintzatuta geratuko da 22. artikuluko 3. apartatuan jasotako komunikazio- eta ekarpen-betebeharrak betetzetik ondorioztatzen denera, bai eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzetik ondorioztatzen denera ere.

21. artikulua.– Ikastetxeak baimentzearen arloko zuzendari eskudunaren txosten loteslea.

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako proposamen-txostenen ondoren, hezkuntza-sistemako unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeak baimentzearen arloko sail eskuduneko zuzendaritza-organoak aldeko edo kontrako txosten loteslea egingo du; horretarako, aurretik entzunaldia egin eta, hala badagokio, espedientea aztertuko du.

2. Betebeharren bat betetzen dela jakinarazteko, aurkezteko eta egiaztatzeko zain dagoen aldeko txostenak ohartaraziko du kasu zehatz horretan dauden komunikazio- eta ekarpen-betebeharrak betetzearen baldintzapean dagoela, bai eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzetik ondorioztatzen denaren baldintzapean ere.

5. artikuluko 2. apartatuan jasotako ikastetxe publikoen kasuan, artikuluko horretan ezarritakoa bete beharko da.

3. Betebeharrak betetzen direla jakinarazteko, aurkezteko eta egiaztatzeko zain ez dagoen aldeko txostenak baimena ematea proposatuko dio prozedura ebatzeko organo eskudunari.

5. artikuluko 2. apartatuan jasotako ikastetxe publikoen kasuan, artikuluko horretan ezarritakoa bete beharko da.

4. Artikulu honetan araututako txostena izapide erabakitzaileko egintza bat da, 5. artikuluko 2. apartatuan adierazitako kasuan izan ezik; kasu horretan, prozedura ebatzeko izango da.

Artikulu honetan aurreikusitako txostenaren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1. artikuluan ezarritakoarekin bat.

22. artikulua.– Betebeharren bat betetzen dela jakinarazteko, aurkezteko eta egiaztatzeko zain dagoen txostena.

1. Obrak egiteko zain dauden aldeko txostenen kasuan, obrak amaitu ondoren, eskatzaileak obrak amaitu direla jakinaraziko du, jarraian adierazitako gehieneko epean.

2. Irakasleen eta nahitaez eduki beharreko beste profesional batzuen zerrenda eta titulazioa aurkezteko zain dauden aldeko txostenen kasuan, edo 17. artikuluko 5. apartatuan aipatzen diren deliturik ez dagoela egiaztatzeke zain dauden txostenen kasuan, edo artikuluko 6. apartatuan aipatzen den materialari eta ekipamenduari buruzko zerrendaren eta dokumentazioaren zain dauden txostenen kasuan, eskatzaileak eskatutako zerrenda eta dokumentazioa jarraian adierazitako gehieneko epean aurkeztu beharko ditu.

3. Aurreko apartatuetan ezarritako gehieneko epea eskaeran hasierako egun gisa adierazitako ikasturtea hasi aurreko maiatzeko azken egun baliodunean amaituko da.

Komunikazioa eta ekarpena telematikoki egingo dira, dagoeneko hasita dagoen baimen-espedientean, "Nire karpeta" gunean.

4. Proposamen-txostena egin duten zerbitzuek egiaztatuko dute egiaztatzeke zain dauden baldintzak betetzen direla. Aldeko proiektua izango luketen obren kasuan, egiaztapenaren xedea izango da obrak proiektuarekin bat egin direla egiaztatzea.

5. Ondoren, hezkuntza-sistemako unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeak baimentzearen arloko sail eskuduneko zuzendaritza organikoak, aurretik entzunaldia egin eta, hala badagokio, espedientea aztertuta, jarduketa hauetakoren bat egingo du:

a) 5. artikuluko 2. apartatuan jasotako ikastetxe publikoen kasuan, nahitaez egingo du egiaztapen-txostena. Txosten hori ikastetxea sortzeko edo aldatzeko espedienteari erantsiko zaio.

b) Ikastetxe pribatuen kasuan, prozedura ebazteko organo eskudunari baimena ematea edo ukatzea proposatuko dio.

23. artikulua.– Baimen-prozeduraren ebazpena.

1. 5. artikuluan ezarritakoarekin bat, organo eskudunak baimena emango du, baldin eta indarrean dagoen legedian ezarritako gutxieneko betebeharrak betetzen badira.

2. Baimenean, eta, hala badagokio, aldeko txostenean, datu hauek agertuko dira (datuok aldatzeko dekretu honen III. Kapituluan ezarritako prozedura izapidetu beharko da):

a) Baimenaren titularra.

b) Ikastetxearen izen generikoa eta espezifikoa.

c) Kokapena, honako hauek adierazita: kalea, zenbakia, udalerria eta lurralde historikoa. Kokaleku edo egoitza desberdinez osatutako ikastetxeen kasuan, egoitza guztien kokapenari buruzko datuak jasoko dira, eta egoitza nagusia zein den adieraziko da.

d) Baimentzen diren irakaskuntza zehatzak, honako hauek adierazita: mailak, zikloak, graduak, modalitateak edo espezialitateak, bai eta blokeak edo moduluak ere eskaintza partzialen edo modularren kasuan. Egoitza bat baino gehiago izanez gero, egoitza horietako bakoitzari dagokiona zehaztuko da.

e) Maila, ziklo, gradu, modalitate edo espezialitate bakoitzerako baimendutako unitate eta ikaspostuen kopurua, bai eta blokeak edo moduluak ere eskaintza partzialen edo modularren kasuan. Egoitza bat baino gehiago izanez gero, egoitza horietako bakoitzari dagokiona zehaztuko da. Txanda desberdinak badira, txanda bakoitzeko ikasleen gehieneko kopurua ezarriko da, ikasketa-planean ezarritako ordutegiaren arabera.

f) Irakaskuntza emateko araubidea: egunekoa, aurrez aurrekoa, erdi-presentziala, urrutikoa edo distantzia birtualekoa, dagokion antolamendu akademikorako arauetan ezarritakoaren arabera.

3. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean egingo eta jakinaraziko da prozeduraren ebazpena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikulua arabera, gehieneko epe hori zenbatzean, lege ezarritako eteteak hartuko dira kontuan, besteak beste, eskaera zuzentzeko, akatsak zuzentzeko edo dokumentuak aurkezteko errekerimenduak, proposamen-txostenak egiteak eta nahitaezko egiaztapenak egiteak eragindakoak.

Errekerimenduek berariaz jasoko dute ebazteko gehieneko epearen zenbaketa eten egingo dela, eta interesdunari emango zaio horren berri. Nahitaezko txostenek eragindako etenaldien kasuan, txostena noiz jaso den ere jakinaraziko zaio interesdunari.

Gehieneko epea gainditu bada baina prozeduraren ebazpena egin eta jakinarazi ez bada, baimena ezetsi egin dela ulertuko da administrazioaren isiltasun negatiboagatik.

4. Eskatzaileari jakinaraztea gorabehera, 5. artikuluko 2. apartatuan aipatzen den ikastetxe publikoa baimentzea eta, hala badagokio, sortzea, eta baimendutako irakaskuntzak aldatzea ere, erregistroan inskribatu, ofizialki argitaratu eta sarbide publikoa izan beharko dute, 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

24. artikulua. – Baimenaren data eta ondorioak.

1. Baimenak berau eman eta hurrengo ikasturtearen hasieran izango du eragina, eskatzaileak berariaz eskatzen ez badu baimena eman eta hurrengo ikasturtearen hasieran ondorioak izateko.

25. artikulua.– Irakasleen eta nahitaez eduki beharreko beste profesional batzuen zerrenda gerora aldatzea.

1. Baimena eman ondoren, irakasleen eta ikastetxeak nahitaez eduki behar dituen bestelako profesionalen zerrendan egindako aldaketa oro, dela zerrenda handitzeagatik, murrizteagatik edo ordezkatzegatik, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko zaio, Hezkuntzako Ikuskaritzak txostena egin ondoren, zerrendaren aldaketa onartzen duen ebazpena egin dezan.

2. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da ikastetxeak baimentzearen arloko zuzendaritza organiko eskudunaren aurrean.

26. artikulua.– Baimenean kontuan hartutako betebeharrak betetzen direla jarraitzea eta kontrolatzea.

20. artikuluan adierazitako zerbitzuek proposamen-txostenari dagozkion baldintzak etengabe betetzen direla ziurtatzeko jarraipena eta kontrola egingo dute. Gainerako betebeharrak etengabe betetzen direla jarraitzea eta kontrolatzea ikastetxeak baimentzearen arloko sail eskuduneko zuzendaritza organikoari dagokio.

Betebehar horiek betetzen ez badira, zerbitzu horiek dagokion prozedura hastea proposatuko diote eskumenaren organo titularri.

III. KAPITULUA

BAIMENA ALDATZEA

27. artikulua.– Baimena aldatzeko prozedura eta eskumena.

1. 28. artikuluan ezarritakoaren arabera baimena aldatzea dakarten aldaketak aldeztu aurretik baimendu behar dira, baimena emateko ezarritako prozedura- eta eskumen-arauen eta kapitulu honetan jasotako arau espezifikoaren arabera.

2. Baimena aldatzeko prozedura ebatzeko eta jakinarazteko epea hiru hilekoa da, lege ezarritako epearen zenbaketaren eteteak gorabehera. Gehieneko epea igaro ostean, berariazko ebazpenik egin ez bada, aldaketa ezetsi egin dela ulertuko da.

3. Hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko ikastetxe publikoen kasuan, ikastetxeak proposatutako irakaskuntzen edo prestakuntza-eskaintzaren aldaketetan izapide eta akordio gehigarri ez-lotesle hauek egin beharko dira:

a) Ikastetxeko zuzendaritza-kargua betetzen duen pertsonak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaliko du eskaera, eskatzen den aldaketa ezarri aurreko ikasturteko martxoaren 15a baino lehen.

b) Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Proposamena onartzen den ikastetxeko Eskola Kontseiluaren saioaren aktaren ziurtagiria.

– Zuzendariaren txostena, honako hauek justifikatuko dituenak: proposamenaren egokitasuna, ikastetxeko prestakuntza-eskaintza izango duen eragina, ikasleengan izango duen eragina, behar den azpiegiturari dagokionez ikastetxeak duen erabilgarritasuna eta pertsona eta materialen arloko errekerimenduak.

28. artikulua.– Baimena aldatzeko arrazoiak.

1. Honako hauek izango dira baimena aldeztu aurretik aldatzeko arrazoiak:

a) Baimendutako irakaskuntzak areagotzea, murriztea edo ordeztzea, hauek barne: mailak, graduak, zikloak, modalitateak, espezialitateak, blokeak, moduluak eta unitateak edo ikaspostuak.

b) Erabilera edo helmuga handitzea, murriztea edo aldatzea dakarten espazio edo instalazioetako aldaketak.

c) Irakaskuntza emateko araubidea zabaltzea edo murriztea.

d) Ikastetxearen titulartasuna aldatzea.

f) Ikastetxearen izen espezifiko aldatzea.

g) Baimenean jasotako datuak aldatzeko beste kasu batzuk, artikuluko honen hurrengo apartatueta salbuetsitakoak izan ezik.

2. Kalearen izena edo zenbakia aldatzen bada, baina kokapen berari eusten bazaio, ez da baimenaren aldaketa izango. Nolanahi ere, nahitaez jakinarazi behar zaio Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeen erregistroari, eguneratu dezan.

3. Ikastetxearen helbidea aldatzen bada lekuz aldatu delako, beste baimen bat beharko da, ikastetxeak identifikazio-kode berari eutsiko dion arren.

29. artikulua.– Egunekoa eta aurrez aurrekoa ez den araubideetan irakaskuntza emateari buruzko aldaketa.

1. Irakaskuntza aurrez aurrekoa eta egunekoa ez den beste araubide batean ematea baimentzeko, irakaskuntza zehatz hori arautzen duen araudiak kontrakoa ezarri behar du, ikastetxeak

irakaskuntza bera eguneko eta aurrez aurreko araubidean emateko alde z aurretik baimena izan behar du eta benetan eman behar du.

Ondorioz, eta aipatutako salbuespenarekin, irakaskuntza egunekoa eta aurrez aurrekoa ez den bestelako araubideetan emateko baimena 28. artikuluko 1. apartatuko c) letran jasotako arrazoiaren ondoriozko baimen-aldaketa gisa izapidetuko da.

2. Arau espezifikoek hori ahalbidetzen duten irakaskuntzak bakarrik eman ahal izango dira egunekoak eta aurrez aurrekoak ez diren araubideetan.

3. Irakaskuntza bakoitzaren araudi espezifikoak aurkakorik ezartzen ez badu, irakaskuntza egunez eta aurrez aurre ez den beste araubide batzuetan ematea baimentzeko, betebeharrak hauek guztiak bete behar dira:

a) Artikulu honen 1. apartatuan jasotakoa.

b) Irakaskuntza horretan, antolamendu akademikoko araudi orokorrak edo titulu akademiko bakoitzaren araudi espezifikoak berriaz baimentzea eskatutako araubidean eskaintzeko aukera.

c) Aurrez aurrekoa ez den irakaskuntzarako bereziki diseinatutako material didaktikoak izatea, bai eta ikasleekin etengabeko interakzioa izateaz arduratzen diren irakasleak ere, irakasgai bakoitzerako egutegi espezifiko batean ezarritako tutoretzen bidez.

e) Irakaskuntza birtuala emateko, plataforma birtualak izatea, komunikatzeko eta bitartekoak partekatze baliabide gisa.

f) Dagokion irakaskuntza emateko araubide zehatzerako arau ezarritako beste edozein betebeharrak.

4. Hezkuntza Ikuskaritzaren proposamen-txostenean aipatuko da eskatutako irakaskuntza-araubidea aplikatu beharreko araudira egokitzen dela, eta eskatutako irakaskuntza-araubidearen berriazko giza baliabideak eta baliabide materialak egokiak direla.

5. Azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoa gorabehera, hezkuntza-arloko sail eskudunaren arau-xedapen bidez finkatuko dira, aurrez aurrekoak ez diren irakaskuntza-araubideetarako, kasu bakoiko araubide zehatzari egokitu bidez betebeharrak teknikoak eta irakaskuntza emateko eta ebaluatze baliabide funtzionalak; horien xedea izango da ikasleek eskatutako ikaskuntza-emaitzak lortu ahal izatea eta behar bezala ebaluatua izatea bermatzea.

30. artikulua.– Titulartasuna edo izen espezifiko aldatzeagatik baimena aldatzea.

1. Titulartasuna aldatzeagatik baimena aldatzeko, artikulu honetan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Titulartasun-aldaketa izango da irakaskuntza emango duen ikastetxearen kostu bidezko edo doako eskualdaketa oro, «*inter vivos*» edo «*mortis causa*». Titulartasuna aldatzeagatik aldaketa-prozedurak ez du eraginik izango ikastetxearen ohiko funtzionamenduan.

2. «*Inter vivos*» titulartasun-aldaketagatik baimena aldatzeko eskaerari agiri hauek erantsiko zaizkio:

a) Eskrituraren kopia autentifikatua edo entitate titular berriaren eta haren ordezkariaren eskubidea egiaztatzen duen beste edozein agiri publikoren.

b) Entitate titular berriaren identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Jabetza aldatu izanaren formalizazio-agiria.

d) Ikastetxearen titular berria dekretu honen 8. artikuluko 2. apartatuan jasotako ezein kasutan ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena.

e) Titular berria titular lagatzaileak ikastetxeari zegokionez zituen eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatu dela egiaztatzen duen agiri publikoa.

3. «*Mortis causa*» titulartasun-aldaketaren kasuan, jaraunspen bidezko eskurapenaren egiaztatzea ere aurkeztu beharko da.

4. Administrazio-baimena errebokatze espedientea izapidetze-bidean duen ikastetxeari ez zaio inoiz titulartasun-aldaketarik onartuko, «*inter vivos*» transferentzia denean.

5. Aldaketa horrek ikastetxearen berezko izaera badakar, hezkuntza-komunitateari eman beharko zaio horren berri, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 115. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. Ikastetxearen izen espezifiko berriagatik baimena aldatzeko, 13. artikuluan ezarritakoa bete beharko da. Horretarako, titularraren eskaera bakarrik beharko da.

Ikastetxe publikoen kasuan, ikastetxeko Eskola Kontseiluaren akta aurkeztuko da; agiri horretan jasoko da aldaketa-proposamena eta, hala badagokio, erakunde titularraren erabakia.

31. artikulua.– Ofiziozko aldaketa.

Espedienteari hasiera emateko, entzunaldia egiteko eta espedientea aztertze ezbazpena eman ondoren, baimena ofizioz aldatuko da baimena errebokatze arrazoiak badaude, baldin eta baimendutako irakaskuntza guztiei eta irakaskuntza emateko araubideari eragiten ez badie.

IV. KAPITULUA

BAIMENA AZKENTZEA

32. artikulua.– Baimena azkentzeko arrazoiak.

1. Honako hauek baimena azkentzeko arrazoi izango dira:

a) Baimenaren titularrak jarduerak egiteari uzteko eskatzea.

b) Baimena ofizioz errebokatzea, hurrengo apartatuan adierazitako arrazoiaren batengatik.

2. Baimena errebokatze arrazoiak honako hauek dira:

a) Baimena indarrean jartzen den egunean baimendutako jarduera ez hastea edo jarduera bi ikasturtez ez egitea.

b) Gutxieneko betebeharrak ez betetzea.

c) Baimena eman den baldintzak ez betetzea, baldintza horiek aldatzeko eskatu gabe.

d) Akademia antolakuntzari, hezkuntza-proiektuari, curriculum-proiektuari edo prestakuntza-planari buruzko arauak ez betetzea, ez eta irakaskuntza emateko arau ezarritako betebeharrak ere.

33. artikulua.– Titularrak eskatuta baimena azkentzeko prozedura.

1. Laster jarduerak egiteari uztea aurreikusten bada, titularrak baimena azkentzea eskatuko du

jarduerak egiteari uzteagatik.

Halaber, ofizioz errebokatzeko arrazoirik izanez gero, titularrak hezkuntza-arloko sail eskudunari eskatu ahal izango dio ofizioz errebokatzeko prozedura hasteko, hori justifikatzen duen arrazoi zehatza adierazita.

3. Prozeduraren instrukzioak eta ebazpenak kontuan hartuko du ikasleak baimendutako irakaskuntzetan jarraitzeko bermea. Horretarako, baimena azkentzearen ondorioak pixkanaka ezarri ahal izango dira.

34. artikulua.– Baimena ofizioz errebokatzeko prozedura.

1. Ofizioz errebokatzeko prozedura hasi aurretik, baimenaren titularrari jakinarazi beharko zaio errebokatzearen arrazoia, egokitza jotako epean zuzen dadin, hauek kontuan hartuta: bai gabeziaren tipologiaren arabera horretarako behar den gutxieneko zentzuzko denbora, bai behatutako gabeziak ikasleengan edo hirugarrenengan duen eragina.

2. Epe hori igaro bada, baina gabezia konpondu ez bada, ikastetxeak baimentzeko sail eskuduneko zuzendaritza-organoak ofizioz errebokatzeko prozedurari hasiera emateko ebazpena egingo du. Ebazpen horretan, jokoan dauden interesak aintzat hartuta, baimena behin-behinean eteteko kautelazko neurri bat ezarri ahal izango da, betiere ikasleek baimendutako irakaskuntzetan jarraituko dutela bermatuz gero.

3. Prozedura hasteko ebazpena jakinarazi ondoren, ikastetxeetako espazioen eta instalazioen betebeharrak betetzen direla ikuskatzeko ardura duen unitate teknikoaren edo Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena egin ostean, gabeziaren izaera dela-eta dagokionaren arabera, eta entzunaldiaren izapidea eta espedientea aztertzeke izapidea egin ostean, ikastetxeak baimentzeko sail eskuduneko zuzendaritza-organoak honako jarduketak hauetakoren bat egingo du:

a) Ikastetxe pribatuen kasuan, errebokatzeko arrazoia badago, baimena errebokatzeke proposamena helaraziko dio 5. artikuluko 1. apartatuan adierazitako organoari. Errebokatzeke arrazoirik antzematen ez bada, horren berri emango du eta jarduketak artxibatzeko aginduko du.

b) Ikastetxe publikoen kasuan, baimena azkentzea bidezkoa dela dioen txosten loteslea egingo du, eta, baimena errebokatzeke arrazoia egonez gero, azkendutzat joko du. Kasu horretan, baimena azkendu dela adierazten duen txostena igorriko dio ikastetxe publikoa ezabatzeko organo eskudunari, ezabatze hori egiteko izapideak has daitezten. Errebokatzeke arrazoirik antzematen ez bada, horren berri emango du eta jarduketak artxibatzeko aginduko du.

35. artikulua.– Azkentzeko data eta haren ondorioak.

1. Irakaskuntza aurrez aurreko araubidean emateko baimena iraungitzen bada, irakaskuntza erdi-presentziala, urrutikoa edo birtuala emango da, hura azken hauetarako baldintza denean.

2. Oro har, azkentzeak ondorioak izango ditu irakaskuntza ematen den ikasturtea amaitutakoan. Ikasleen segurtasunak justifikatzen duenean, ondorioen data aurreratu ahal izango da.

3. Nolanahi ere, baimena azkentzen bada, ikasleek irakaskuntzetan jarraituko dutela bermatuko da. Horretarako, irakaskuntza emateari pixkanaka uztea erabaki ahal izango da, ikastetxean matrikulatutako ikasleek hezkuntza-ibilbidean aldaketarik izan ez dezaten.

4.– Bai 33. artikuluan ezarritako jarduerak egiteari uzteagatik baimena azkentzea, bai 34. artikuluan aipatutako ofiziozko errebokazioa gertatzean, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen erregistroan baja inskribatu beharko da, eta ikastetxeak baimentzeko sail eskuduneko zuzendaritza organikoak unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen Estatuko erregistroari helaraziko dio bai hori.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. – Hezkuntza-administrazioa ez den beste titulartasunen bat duten ikastetxe pribatu eta publikoak hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko ikastetxeei atxikitzea.

1. Ikastetxe pribatu baimenduak eta hezkuntza-administrazioak ez diren publikoak Kirolene Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoari atxikiko zaizkio (hezkuntza-arloko sail eskudunaren titulartasuneko), hala badagokio, irakaskuntzak arautzen dituen araudian ezarritako ondorioetarako.

2. Geografikoki lurralde-eremu berean edo desberdinetan dauden egoitza bat baino gehiagoko baimena edo sorkuntza izanez gero, baimendutako egoitza guztietatik zerrendatuko dira, administrazio-ondorioetarako, egoitza nagusirako izendatua izan den atxikipen-zentro publikoarekin.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. – Hitzarmenak ikastetxe pribatuekin eta autonomia-erkidegoko kirol-federazioekin.

Hezkuntza-administrazioak hitzarmenak sinatu ahal izango ditu ikastetxe pribatuekin eta autonomia-erkidegoko kirol-federazioekin, dekretu honen xede diren araubide bereziko kirol-irakaskuntzak sustatzeko, bai eta irakaskuntza horiek emateko ere, uztailaren 26ko 628/2022 Errege Dekretuak aldatutako urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 25. artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. – Datu pertsonalak.

1.– Dekretu honetako prozeduretan aurkeztutako eskaeretan eta dokumentuetan jasotako datu pertsonalen tratamendua ikastetxeak baimentzeko zuzendaritza eskudunak egingo du, datuen tratamenduaren «arduradun» gisa. Datu pertsonalak tratatzearen xedea izango da aurkeztu diren eskabideak kudeatu eta ebaztea, haien interes publikoan eta parte hartzeko eskabidean oinarrituta.

Interesdunek baliatu ahal izango dituzte datuetara iristeko eskubideak eta haiek zuzendu, ezabatu eta eramatekoak, bai eta tratamendua mugatzeko edo hari uko egiteko ere helbide honetan: <www.euskadi.eus/proteccion-datos>. Gainera, behar diren kontsultak egin ahal izango dizkiote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1.n) artikulua ezarritakoarekin bat etorritik (2/2004 Legea, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzkoa). Edo, bestela aurretiazko erreklamazioa egin dezakete datuak babesteko ordezkariaren aurrean (<www.euskadi.eus/servicios/10843>).

2.– Datu pertsonalak kudeatzeko, honako hauek xedatutakoa aplikatuko da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzekoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra); 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko; 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzkoa.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. – Hezkuntza-sistemaren parte ez diren irakaskuntzak.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 3.2 artikuluan jasota ez dauden irakaskuntzak emateko, irakaskuntza horiek arautzen dituzten arauak ezarritakoa bete beharko da, eta, horrelakorik ez badago, jarduera gauzatzeko zuzenbide erkideko arauak ezarritakoa.

Halaber, uztailaren 22ko 182/1997 Dekretuan ezarritakora egokituko dira. Dekretu horren bidez, balio akademikoa duten tituluak lortzera bideratuta ez dauden irakaskuntza ez-unibertsitarioak ematen dituzten ikastetxe pribatuetako erabiltzaileen informazio eskubidea arautzen da.

2. Ezingo da erabili ikastetxearen titulartasunari eta emandako irakaskuntzak hezkuntza-

sistematik kanpokoak izateari buruz nahastea eragin dezakeen izenik.

Era berean, ezingo dira erabili ziurtagiri, maila, gradu edo titulu ofizialen izenik, ez eta ikastetxeen izenei dagokienik ere, ez eta gaizki-ulerturen bat edo haiekiko nahasketaren bat eragin dezakeen izenik ere.

3. Diplomak edo ziurtagiriak emateko erabiltzen diren euskarrien materialak, formatuak eta tamainak argi eta garbi bereiziko dira titulu ofizialetarako ezarritakoetatik.

4. Egiten duten publizitatean, eta ikasketak amaitzean ematen diren diplometan edo ziurtagirietan, argi eta garbi adierazi beharko da ematen diren ikasketak ez direla ofizialak.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. – Emandako baimenak eta izapidetzen ari diren prozedurak.

Dekretu hau indarrean jarri baino lehen baimenak izapidetzeko, aldatzeko, azkentzeko edo errebokatzeko hasita zeuden prozedurak eskabidea egin zen unean indarrean zegoen araudiaren arabera izapidetuko dira. Hala ere, prozedura ebatzi aurretik, interesdunak eskabidean atzera egin dezake, eta beste prozedura bat hasi, zeinari dekretu hau aplikatuko bailitzaioke.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA. – Araubide erdi-presentzialean, urrutitik, distantzia birtualean edo mistoan emateko baimena.

Erdi-presentziala, urrutikoa, distantzia birtualekoa edo mistoa den irakaskuntza baimentzeko betebeharrei buruzko dekretu hau garatzeko arauak dekretu hau indarrean sartu eta gehienez ere bi urteko epean onartuko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA. – Eskumenak eskuordetzea.

Hezkuntza-arloko sail eskudunaren titularraren agindu baten bidez, eta 40/2015 Legearen 9. artikuluan ezarritako baldintzetan, ikastetxeak baimentzeko zuzendaritza eskudun titularraren esku utz daiteke dekretu honen III. kapituluan aipatzen diren baimena aldatzeko eskaerak ebazteko ardura.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA. – Indarraldia.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Nolanahi ere, irakaskuntza araubide erdi-presentzialean, urrutitik eta distantzia birtualean emateko prozeduren baimenari, txosten- edo irizpen-izapideei eta dokumentazioa aurkezteko izapideei dagokienez, dekretu honetan ezarritakoaren benetako aplikazioa dekretu honetako arau-xedapenen ezarritakoaren arabera izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko XXXXXXaren XX(a).

LEHENDAKARIA,

IÑIGO URKULLU RENTERÍA

HEZKUNTZAKO SAILBURUA,

JOKIN BILDARRATZ SORRON.